

LAN ESKUBIDE ZAPALDUAK

Oinetakoen industria globaleko 23 enpresen ekintzen irudia, Giza Eskubideen Beharrezko Diligentziaren inguruan


FITXA TEKNIKOA

2014ean 24.000 milioi oinetako ekoiztu ziren¹. Datu honek primeran adierazten du munduko merkatuaren dinamismoa, non **“fast-fashion”** sistemak kontsumo jarrerak gidatzen ditu Europan eta aberastasuna handitzen ari duten sortu berriko ekonomietan. Langileek pairatzen duten ekoizpen intentsiboa, prezioek eta eskariak entregatzeko epeen presioa, langileen bizitzan eta haien lan baldintzetan eragina dute, munduko edozein lekutan. Sektorearen dinamika globala eragina izan du ere Europako lan baldintzetan: urteetan zeharreko kostuen kompetentziaren ondoren, soldatak behera egin dute bai herrialde aberatsetan, bai herrialde pobreetan. Horrek guztiak ekoizpenaren berkokapena eragiten ari du Europaruntz itzuliz. Giza eta lan eskubideen alde lan egiten dugun erakundeok, oso kezkatuta gaude oinetako industriaren langileekin, edozein herrialdekoekin. Oinetakoen ekoizpen sistema aldatzeko momentua iritsi da.

Aldatu Zure Zapatak (AZZ) proiektuak oinetakoen fabrikak aztertu zituen, zapaten industriaren irudi bat izateko, ze puntuan aurkitzen den jakiteko, gizarte iraunkartasunari dagokionez eta kontsumitzaileak jakin dezaten ze markek egiten duten gehiago eta zeintzuk gutxiago hornidura kate globalean lan baldintzak urratu ez daitezten. Helburu horrekin, Europako kale nagusitan zehar presentzia handia duen 23 enpresa² ikertu dira.

NBEren³ Enpresa eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidarien arabera **enpresek dute erantzunkizuna giza eskubideen derrigorrezko diligentzia hornidura kate globalean implementatzeko.** Enpresen erantzunek eta dokumentazioaren azterketak azaleratu dute oinetakoen fabrikatzaileek oraindik ez dutela bere erantzunkizun hori betetzen.

AZZ kanpainiak enpreseei eskatzen die haien aktibitate komertzialaren arriskuak sistematikoki aztertzeke esfortzu handiagoa egin dezaten, eta, horrela, giza eta lan eskubideak munduko edozein tokitan errespetatzen direla berma dezaten. Txosten honen ondorioek, enpresa batzuen jarrerak hedatzeko balio dezala espero dugu, eta informazio horrek beharrezko sinergiak eragin ditzala, langileen erakunde antolatuek eta enpresek elkarrekin lan egiteko giza eskubideen derrigorrezko diligentzia garatzeko.



> 2014ean 24.000 milioi oinetako ekoiztu ziren¹

1 World Footwear Yearbook, APICCAPS, June 2015, p. 4

2 Aldatu Zure Zapatak, Oinetakoen industria globaleko 23 enpresen ekintzen irudia, Giza Eskubideen Beharrezko Diligentziaren inguruan, Txostena osorik, 2016eko ekaina.

3 Nazio Batuen Giza Eskubideetako Goi Komisarioaren Bulegoa, NBEko giza eskubideen eta enpresen printzipio gidariak. Nazio Batuen markoaren praktikan jartzea "Babesteko, errespetatzeko eta erremediatzeko". New York eta Ginebra (2011). http://www.ohchr.org/Documents/Publications/GuidingPrinciplesBusinessHR_SP.pdf

ENPRESEN SAILKAPENA:

KOMENTARIORIK EZ:

AZZ kanpainiarekin kolaboratu ez zuten enpresak eta inkesta erantzun ez zutenak.



ara

BALLY

BIRKENSTOCK
MADE IN GERMANY - TRADITION SEIT 1774

CAMPER

CCC

ECCO

Salvatore Ferragamo

LEDERUNDSCHUH®

rieker

TOD'S

wojas

AHALEGIN MINIMOA:

Langileen eskubideak errespetatzen dituztela eta derrigorrezko diligentziako ekintzak aurrera eramaten dituztela frogatzeko **ia daturik eman ez zutenak.**



Gabor GEOX PRADA

LEHENENGO PAUSUAK:

Giza eskubideen derrigorrezko diligentzia ekintzak deklarazio moduan bereganatu dituztenak baina indarrez inplementatu dituztenik probatu ezin dituzten enpresak.



Bata

Clarks

DEICHMANN

LOWA
Outdoor- & Skiboots

MANGO

NILSON SHOES

BIDE ONEAN:

Orokorrean, beraien jarduera enpresarialak **giza eskubideen derrigorrezko diligentziako zenbait mekanismo aurreikusten dituztela** proba dezaketen enpresak, baina oraindik nahikoak ez direnak.



adidas

EUROSKO

IN EL
NATURALISTA


AURRERAPEN EGOKIA:

Giza eskubideen derrigorrezko diligentzia ekintzak kate osoan zehar txertatzeko kapazak direla **forga dezaketen** enpresak eta, gainera, **jarduera enpresariala etengabe egokitzen dutenak** giza eskubideekiko eragin ezezkorrak detektatzeko, langileen lan baldintzak modu eraginkorrean zaintzeko.



Ikertutako enpresetako ezta bat ere.

Enpresen jarrereei hobeto erreparatzen badiogu, giza arduraren eta giza eskubideen errespetuan nagusi diren gaietan, argi dago, orokorrean, hobetzeko asko dagoela.



Hornidura katearen estrukturek giza eskubideen derrigorrezko diligentziak behar bezala betetzeko kontestu lagungarria dute:

enpresen gehiengoan hornidura katearen antolakuntzak adierazten du aukera badagoela giza eskubideei buruzko mekanismoak txertatzeko. **12 enpresetatik 7 enpresek oinetakoen zati bat haien fabriketan ekoizten dute.** Hare gehiago, Batek oinetakoa osorik ekoizten du bere fabrika propioetan. Gehiengoak hornitzaile ezberdinekin lan egiten du. Ikertutako 12 enpresetatik 3 enpresek oinetakoaren ehunekoia edo zati handi bat Europan ekoizten dute. Bitartean, 8 konpainia, gehien bat, Asiak hornitzen ditu.

Gardentasun falta: kontaktatutako 23 enpresetik 12 enpresek bakarrik kolaboratu zuten txostenarekin.



Gehienek ez dute betetzen haien erantzunkizuna, hau da, eragin ezezkorreei aurre egiteko moduari buruzko informazioa ematea. 23etatik 9ek bakarrik argitaratu dute eraginkortasun memoria bat. Gardentasun falta hau eta kontu emateko ardura falta honek pertsona guztiak kezkatu beharko luke. Kontsumitzaileak eta zapatak egiten dituzten langileak barne. Lan baldintzei buruzko informazio falta eta zurrategietako aktibitateak dira bereziki kezkarriak. Kezkarria da Leather Working Groupa (Larruaren inguruko lan taldea, enpresa askok haren menpean daude zurrategiak ikuskatzeko) ikuskapen txostenak publikoki ez argitaratzea. Gainera, eskubideen urraketak arintzeko jardueren proba oso gutxi erakutsi zaizkio AZZri.



Arazoak konpontzeko erantzunkizuna batez ere hornitzaileena da: ikertutako artean enpresa gutxi

probatu ahal izan dute larru eta oinetako hornitzaileekin elkar lanean egon direnik giza eskubideak eta lan baldintzen urraketak arintzeko. Enpresen gizarte arduraren externalizazioa hornitzaileengan, kezkarria da. Aldaketa estrukturalak lortzeko beharrezkoa da markek haien kide komertzialekin lan egitea eta, batez ere, gastuen zati bat bere gain hartzea. Enpresa handiek ez daude prest hornitzaileekin ardura partekatzeko, bereziki giza eskubideekiko eragin ezezkorrak arintzeko orduan. Ikerketak adierazten du, askotan, ikuskapenak zuzentze jarduera planekin⁴ osatzen direla. Orokorrean, plan hauek aurrera eramateko ardura hornitzaileengan erortzen da. Erosleen ekintzek aurreikusitako behar dituzte eragin ezezkorrak arintzeko prozesuak, urraketa askok jarrera komertzialetan dute erroa.

Soldata duinen⁵ ordaintzea ez dago bermatuta herrialde ekoizlarietan: Enpresa bakarra dago bere kide komertzialei soldata duinak ordaintzera behartzen dituen

eta 12 enpresetatik ezta bat ere ezin du bermatu bere hornidura kateko langile guztiek soldata duin bat jasotzen dutenik.



Ez da lan osasuna eta segurtasuna bermatzen (LOS): batez ere, ez dira modu egokian identifikatzen ezta arintzen zurrategietako lan baldintzekiko eragin ezezkorrak. Inkestak LOSaren bermaketa eta urraketan zuzenketaren ardura guztia hornitzaileena dela adierazten du. Langileriaren babesarako enpresek egindako segimendu ekintza eta neurri gehienak ez dira nahikoak.

⁴ Zuzentze jarduera plana, enpresa eta hornitzailearen arteko akordioa da, detektatutako arazoak konpontzeko kalendario batekin, adibidez, lanigileen eskubideak urratu ditzaketenak.

⁵ Soldata duina, definizioz, lanigileen oinarritzko beharrak eta haien familienak asetzeko balio duena da. Soldata duina kontzeptua ondo barneratuta dago giza eskubideen diskurtso internazionalan.

Ez da askatasun sindikala eta negoziazio kolektiboa bultzatzen:


inkestaren erantzunen gehingoak adierazten du enpresek ez dituztela ia ekintzarik egin askatasun sindikala eta negoziazio kolektiborako eskubidea babesteko bere hornitzaileen jardueratan. **Indonesian, sei enpresetatik bakarrak onartu zuen herrialde honetako askatasun sindikalaren inguruko protokoloa⁶ sinatu zuela.**



Kolektibo ahulenak babesik gabe geratzen dira: azterketak adierazi zuen arrisku handia dagoela **migrante eta etxetik lan egiten duten kolektiboak** identifikatzeko eta babesteko, hau da, talde ahulenak.



Ekintza gutxi daude lan baldintzak hobetzeko helburuarekin: Oinetako industria duen interesa hornidura kateko gizarte ardurarengan oso berria da. Ekintza asko sortu dira ingurumenarekiko ekoizpen arduratsuen alde eta kontsumitzaileen eskubideak babesteko, **baina hornidura kate osoan zehar lan egiten duten pertsonak babesteko ia ez dago ekintzarik.** Nahiz eta, enpresa guztiak substantzia arriskutsuen erabilerari buruz hausnartuta daude, ikuspuntua ingurumena eta kontsumitzailea babestekoarena da, ez langileria.



ONDORIOA

Ikerketa honen datuek, enpresek esfortzu handiagoa egin behar dutela beren jardura enpresarialaren arriskuak sistematikoki aztertzeko eta horrela giza eta lan eskubideak bermatzeko, mundu mailan. Askok egiteko dago, batez ere: soldata duinen ordainketan, lan osasun eta segurtasunean, askatasun sindikalean, gardentasunean eta herritarren aurreko kontu emanetan. Txosten honek oinetakoen industriako enpresen giza eskubideen derrigorrezko diligentzien ekintzen radiografia izan nahi du. Ondorioek argi adierazten dute hobetzeko beharra. AZZak gizarte erantzunkizunarekin eguneratu daitezten eta utzi diezaiotela giza eta lan eskubideak zapaltzeari eskatzen die enpreseei.

**ALDATU ZURE ZAPATAK,
ENPRESEK BERE ERANTZUNKIZUN
SOZIALAREKIN EGUNERATU
DAITEZEN ETA LAN ETA GIZA
ESKUBIDEAK ZAPALTZEARI UTZI
DEZATEN ESPERO DU**



⁶ Sindikatu Askatasunerako Protokoloa, lekuko sindikatuen, kirol marken eta hornidoreen artean sinatutako akordioa da, Indonesiako sindikatu askatasuna erregulatzen duena zehazki.

ALDATU ZURE ZAPATAK

Aldatu Zure Zapatak kanpainia internazionalak ingurumenean eta baldintza sozialak aldatzeko lan egiten du. Bai zurrategietan, fabriketan, tailerretan eta lurrezko oinetakoen ekoizpena egiten den etxeetan ere. Kanpaina honetako konsorzioak Europako 15 erakundek eta Asiako 3 erakundek osatzen dute. Aldatu Zure Zapatak, munduko oinetako hornidura kateko langileriak soldata duin bat eskuratzeko eta lan baldintza seguruak izateko eskubidea eta kontsumitzaileak produktu seguru eta gardenak eskuratzeko eskubidea dutela uste du.

Txostenaren argitalpena: Aldatu Zure Zapatak

Argitalpenaren urtea: 2016

ESKERRAK

Egile nagusia:

Julia Spetzler

Editoreak:

Charlie Aronsson - Fair Trade Center

Berndt Hinzmann - Inkota

Eva Kreisler - Federación SETEM

Deborah Lucchetti - Fair

Christa Luginbühl - Berne Declaration

Anna McMullen - Labour Behind the Label

Anna Paluszek - Buy Responsibly Foundation

Anton Pieper - Südwind

Euskarara itzulia:

Itziar Pérez Argomaniz - SETEM Nafarroa

Diseinua:

Yoge Comunicazione Sensibile

Maketazioa:

Concepte Gràfic - www.conceptegrafic.com



Txosten hau Europar Batasunaren laguntzarekin egin da. Edukien arduradun bakarra Aldatu Zure Zapatak kanpainia da eta inoiz ez da aintzakotzat hartu behar Europar Batasunaren posizioa adierazten dutenik.

